



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2013ko ekainaren 6a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:35

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2013ko apirilaren 30ean egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikinaren erosketari buruz.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratazioa.
- 4.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Karela udal kiroldegiares gestio integralaren kontratuari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 'Frankismoaren Krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataforma'k aurkeztutako mozioa.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2013KO APIRILAREN 30EAN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du xehetasun bat erantsi nahi duela aktaren 12. puntuan jasota dagoen bere parte-hartze bati dagokiona: hemendik aurrerako udalbatzarretan 'udal talde politikoek aurkeztutako' mozio guztien kontra bozkatuko dutela esan zuen eta, hain zuzen ere, komatxo artean jasota dagoen hori da azpimarratu nahi dutena eta aktan jasota geratzea nahi dutena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, egindako oharra kontuan hartuta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2013ko apirilaren 30eko ezohiko udalbatzarraren akta, Jose Angel Iparragirre zinegotziak udalbatzar honetan egin dion oharra sartuta.

2.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 'NUEVA CERÁMICA AROCENA' ENPRESAREN ONDOAN DAGOEN ETXELUZE IZENENKO ERAIKINAREN EROSKETARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarrak, 2013ko apirilaren 30ean egindako ezohiko bilkuran, erabaki zuen MAHAI GAINEAN UZTEA Etxeluze izeneko eraikinaren erosketaren gaia, Ogasuneko batzorde informatzaileak dagokion diktamena eman arte.

Udaleko Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko ekainaren 4ko bilkuran aztertu du gaia eta dagozkion diktamenak eman ditu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko ekainaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- BERRESTEA Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikinaren erosketaren onarpena; eraikina ARIN Y EMBIL SRC entitate merkantilarena da eta salerosketaren prezioa 156.975 eurokoa izango da.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, salerosketaren eskritura publikoa sina dezan Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak bi arrazoi hauengatik eman duela abstentzio botoa:

- Batetik, salerosketaren azken prezioan ez delako bereizi kopurua bi kontzeptutan ordaintzen dela: parte bat, alokairu moduan, eraikinaren orain arteko erabileragatik; eta beste parte bat, eraikinaren salerosketaren prezioagatik.
- Bestetik, eguneratutako tasaziorik ez dagoelako espedientean.

Amaia Dorronsoro zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du talde politiko guztiek jaso dutela gai honen tramitazioari buruzko informazioa eta beharrezko dokumentazio guztia (tasazio eguneratua barne) dagokion udal espedientean dagoela.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Jon Redondo zinegotziak esandakoa ez dela horrela, salerosketaren azken prezioa, 156.975 eurokoa, jabeekin hasieratik adostutakoa delako eta, bestalde, udal espedientean badagoelako tasazio eguneratu bat, udal arkitektoak egina.



3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERTATU ZERBITZUAK KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN EMATEKO KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lehiaketaren iragarkia 2013ko apirilaren 2an argitaratu zen 61. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- Arrillaga Garitagoitia, Xabier
- 2.- Gozategi Korta, Amaia
- 3.- Lizarazu Macuso, Xabier
- 4.- Manzisidor Perez, M. Teresa

Kontratazio Mahaiak aho batez proposatu du Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak emateko kontratua Amaia Gozategi Kortari adjudikatzea, berena delako proposamenik egokiena eta, beraz, bere proposamenak jaso duelako puntuaziorik altuena lehiaketan, Klausula Ekonomiko-Administratibo Partikularren Orriaren 16. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

- 1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2013ko maiatzaren 3an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.
- 2.- **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak emateko kontratua Amaia Gozategi Kortari; zerbitzua emateko ustiapen-kanona 15.000 eurokoa da (BEZ aparte).
- 3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (15.000 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



4.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KARELA UDAL KIROLDEGIAREN GESTIO INTEGRALAREN KONTRATUARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia Udaleko Ogasun eta Pertsonaleko batzordean aztertu da, 2013ko ekainaren 4an egindako bilkuran.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko ekainaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- Karela udal kiroldegiaren zerbitzuak gestionatzen dituen KIROLATZEN 2000 SL enpresari Udalak egiten dion urteko diru-ekarpena **GEHITZEA**, kontratuaren oreka ekonomiko-finantzarioa bermatzeko; urteko 40.000 euro gehiago emango zaizkio eta, beraz, urteko kopurua 150.000 eurokoa izango da, guztira, enpresak 12 hilabeteko ordainalditan jasoko duena (ordainaldi bakoitza, 12.500 euro).

2.- **JAKINAREN GAINEAN GERATZEA** honako honetaz: KIROLATZEN 2000 SLk uko egin dio 2013an 18.000 euroko gestio-komisio bat jasotzeari.

3.- **JAKINAREN GAINEAN GERATZEA** honako honetaz: KIROLATZEN 2000 SLk uko egin dio Karela kiroldegiaren gestio osoaren kontratuaren indarraldia sei urtez luzatzeari, eta baimena eman dio Udalarari kontratu horren indarraldia nahi duenean bukatu eta beste lizitazio publiko bat egiteko.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 'FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO KEREILAREN EUSKAL PLATAFORMA'K AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

Orioko Udaletxearen Osoko Bilkurara

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak, idatzi honen beheko partean agertzen diren Elkarteez osatutakoa, egungo legediari jarraituaz Orioko Udaletxearen Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo Mozioaren onarpena.

Orion, 2013ko..... rena.

ARRAZOIEN AZALPENA



1936.eko Uztailean Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernu eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, nekazal eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tarteko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki “nacional-catolicismo” delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizak hurrengoko berrogei urteetan mantendu zuten errepresio bortitza eta jeneralizatuaren bitartez edozein oposizio saihestuaz, torturak, “paseoak”, heriotza-zigorak, eta gainontzeko kondenak jarriaz erregimenaren aldeko epaileen bitartez, atxilotuak inongo defentsa aukerarik izan gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartu zituzten nolabaiteko aldaketa batzuk egitera, baina botere politikoa, judiziala, ekonomikoa, militarra eta errepresiboa mantenduaz eta frankismoaren zutabe nagusienak bermatuaz: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren jabetza eta lehentasuna edozein interes sozialetik gain, eta Elizaren estatus pribilegiatua.

Baina “trantsizio” hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinaren epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik, preskriba-ezinak eta inongo ‘azken puntuko legeak’ amnistiatzerik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zutabeak zartatzen hasia du, hainbat pertsona eta erakunde sozial anitzek urteetan zehar ahalegintzen ari garen bezala. Beraz, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren aldeko une garrantzitsu baten aurrean gaude, milaka eta milaka errepresaliatuen duintasuna lortzeko ahalmen berezia bilakatuaz.

Esandako guzti honegatik, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak, Altafaylla Kultur Taldea, CNT Euskal Herria, Durango 1936 Kultur Elkarteak, Euskal Memoria Fundazioa, Eusko Lurra Fundazioa, Egiari Zor Fundazioa, Garraxika Taldea, Gernika Batzordea, Goldatu Elkarteak, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, Lau Haizetara Gogoan Elkarteak, Martxoak 3 Elkarteak, Oroituz, Sanfermines 78: GOGOAN! eta Sare Antifaxista Elkarteek osatzen dutena, ondoko proposamena luzatzen dizue:

MOZIOA

1.- Orioko Udaletxeak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.



2.- Orioko Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.

3.- Orioko Udaletxeak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.

4.- Orioko Udaletxeak altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenen eskubide eta eskaeren alde egiten du eta administrazio publikoei, hau da, instituzio politiko eta juridikoei, eskatzen die pertsona kaltetu horien eskubideak bermatzeko ere, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoak egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozioekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA -EZINAREN BERMEA ezartzeko.

5.- Ildo honetan, Orioko Udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.

6.- Orioko Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.

Orioko Udaletxeko Osoko Bilkurak deklaratzeko duena 2013ko..... ren... a

Instituzio horretarako hautatuta dauden partaide guztiak animatzen ditugu Frankismoaren Aurkako Kanpaina eta Kereila honekin bat egin dezaten goiko Mozioa onartuaz.

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma

Plataforma Vasca para la Querrela contra los Crímenes del Franquismo

-Altafaylla Kultur Taldea. (www.altafaylla.com)

-CNT Euskal Herria. (bilbao@cnt.es)

-Durango 1936 Kultur Elkartea.



- Euskal Memoria Fundazioa. (www.euskalmemoria.com)*
- Eusko Lurra Fundazioa.*
- Egiari Zor Fundazioa. (www.egiarizor.org)*
- Garraxika Taldea. (www.turrune.wordpress.com)*
- Gernika Batzordea. (www.gernika2012.net)*
- Goldatu Elkarte. (www.goldatu.org) Oficina Virtual para la Querella*
- Intxorta 1937 Kultur Elkarte. (www.intxorta.org)*
- Lau Haizetara Gogoan Elkarte. (www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com)*
- Martxoak 3 Elkarte. (www.martxoak3.org)*
- Oroituz Andoain 1936.*
- Sanfermines 78:GOGOAN! (sf78gogoan@gmail.com)*
- Sare Antifaxista. (sare.antifaxista@gmail.com)*

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Frankismoaren Krimenen aurkako Kereilaren euskal plataformak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,